

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa garatzeko, zenbait baliabide beharko ditugu, 4 ataletan banatuta egongo direnak: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, lehenik eta behin negozio berrientzako sortutako *co-working* bulego bat alokatuko dugu, hilabetean 150€ balio duena.

Enpresako kudeaketa zentruan, bezeroek haien bidaien kontsultak egin ahal izango dituzte.

Baliabide intelektualak gure patenteak, marka eta garapenaren bitartez, ginkana propio eta pertsonalizatuak sortu ditugu.

Giza baliabideak; kontratatuko ditugun langile eta bazkideen formazio egokia zihurtatu beharko dugu, denon artean, gure zerbitzua modu efektibo eta profesional batean gauzatu ahal izateko. Horrela, gure enpresa ondo antolatu eta kudeatu ahal izango dugu.

Finantza- baliabideak: kontaktu ezberdinetako elkarteekin, baita aliantzekin, gure produkzioa eta ustiapen gastuak gutxitu ahal izango ditugu.